**BERTARATUAK**
**ALKATE-UDALBURUA**

Gontzal Hermosilla Ramos jauna

**ALKATEORDEAK**

Leire Basauri Castellanos andrea
María Teresa Fernández García andrea
Naiara Ibarzabal Arrasate andrea
Felix Gabarain Amenabar jauna
Emilio Ramos Rodríguez jauna

**ZINEGOTZIAK**

Francisco Javier Intxaurza Zarandona jauna
Belén Urbieta Pérez andrea
Guillermo Vío Domínguez jauna
Iratxe Moreno Fernández andrea
Ander Moreno del Campo jauna
Ione Aurrekoetxea Yangüas andrea
Juan María Sánchez Conde jauna
Miguel A. Tapia Trigueros jauna
Jon Andoni Gerediaga Bilbao jauna
Manuela Ruiz Vivanco andrea
Juan Ignacio del Vigo Cruz jauna

**IDAZKARIA**

Laura Arana Aguirre, andrea

**SRES. ASISTENTES**
**ALCALDE-PRESIDENTE**

Dª Gontzal Hermosilla Ramos

**TENIENTES DE ALCALDE**

Dª Leire Basauri Castellanos
Dª María Teresa Fernández García
Dª Naiara Ibarzabal Arrasate
D. Felix Gabarain Amenabar
D. Emilio Ramos Rodríguez

**CONCEJALES**

D. Francisco Javier Intxaurza Zarandona
Dª Belén Urbieta Pérez
D. Guillermo Vío Domínguez
Dª Iratxe Moreno Fernández
D. Ander Moreno del Campo
Dª Ione Aurrekoetxea Yangüas
D. Juan María Sánchez Conde
D. Miguel A. Tapia Trigueros
D. Jon Andoni Gerediaga Bilbao
Dª Manuela Ruiz Vivanco
D. Juan Ignacio del Vigo Cruz

**SECRETARIA**

Dª Laura Arana Aguirre

Sopelan, bi mila eta hamazazpiko otsailaren hogeita zortzian, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Udaletxean bildu dira goian adierazitako zinegotziak, Gontzal Hermosilla Ramos alkate-udalburu jaunaren burutzapean, ohiko bilkura egiteko, deialdian ezarritako gai-zerrendaren arabera, eta bertan izan da bilkuraren fede eman duen Laura Arana Aguirre andrea, idazkaria. Bertan izan da Irantzu Otzerin Larizgoitia andrea.

En Sopela, a veintiocho de febrero de dos mil diecisiete, siendo las diecinueve horas y treinta minutos, se constituye el Pleno de este Ayuntamiento bajo la Presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, D. Gontzal Hermosilla Ramos, con asistencia de los/as Sres/as Concejales/as arriba señalados, al objeto de celebrar sesión ordinaria, con arreglo al Orden del Día designado en la convocatoria, con la asistencia de la Secretaria Accidental Dª Laura Arana Aguirre que dará fe del acto. Asiste también Dª Irantzu Otzerin Larizgoitia.

**1.- 2017KO URTARRILAREN 31KO AURREKO BATZORDEKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.** Honen berri emanda, bertaratutakoek, aho batez, ondoko akordio hau hartu dute: onartzen da akta.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR DE FECHA 31 DE ENERO DE 2017**. Dada cuenta de la misma, los asistentes, por unanimidad, acuerdan su aprobación:

**2.- BILKETA ARLOAREN 2016KO KONTU NAGUSIAREN BERRI EMATEA. 2017-0206 DEKRETUA. (471/2016 ESPEDIENTEA):-** Honen berri emanda, bertaratutakoek, aho batez, erabaki dute: jakinaren gainean geratzea.

**2. INFORMAR SOBRE LA CUENTA GENERAL DE RECAUDACIÓN DEL EJERCICIO 2016 . DECRETO ALCALDÍA 2017-0206 (EXPEDIENTE 471/2016).-** Dada cuenta del mismo, los asistentes, por unanimidad, acuerdan: Darse por enterados.

**3.- 2016KO AURREKONTUAREN KITAPENAREN BERRI EMATEA. 2017-0157 ALKATEGO DEKRETUA (80/2017 ESPEDIENTEA).** Honen berri emanda,

**3. DAR CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2'16. DECRETO ALCALDÍA 2017-0157. (EXPEDIENTE 80/2017):-** Dada cuenta del mismo, los

bertaratutakoek, aho batez, erabaki dute: jakinaren gainean geratzea.

asistentes, por unanimidad, acuerdan: Darse por enterados.

**4.- KREDITU TXERTAKETEN BIDEZ UDAL AURREKONTUAK ALDATZEKO 1. ZBK ESPEDIENTEAREN ALDAKETAREN BERRI EMATEA. 2017-0183 ALKATEGO DEKRETUA. (427/2017 ESPEDIENTEA):-** Honen berri emanda, bertaratutakoek, aho batez, erabaki dute: jakinaren gainean geratzea.

**4.- DAR CUENTA DE EXPEDIENTE NÚMERO 1 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE INCORPORACIÓN DE CRÉDITOS. DECRETO ALCALDÍA 2017-0183. (EXPEDIENTE 427/2017):-** Dada cuenta del mismo, los asistentes, por unanimidad, acuerdan: Darse por enterados.

**5.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ UDAL AURREKONTUAK ALDATZEKO 2. ZBK ESPEDIENTEAREN ALDAKETAREN BERRI EMATEA. 2017-0186 ALKATEGO DEKRETUA. (435/2017 ESPEDIENTEA):-** Honen berri emanda, bertaratutakoek, aho batez, erabaki dute: jakinaren gainean geratzea.

**5.- DAR CUENTA DE EXPEDIENTE NÚMERO 2 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL. DECRETO ALCALDÍA 2017-0186. (EXPEDIENTE 435/2017):-** Dada cuenta del mismo, los asistentes, por unanimidad, acuerdan: Darse por enterados.

**6.- "SOPELAKO UDAL EUSKALTEGIA" TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2016KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN KITAPEN ONARPENAREN BERRI EMATEA:-** Honen berri emanda, bertaratutakoek, aho batez, erabaki dute: jakinaren gainean geratzea.

**6.- DACIÓN CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL "SOPELAKO UDAL EUSKALTEGIA" DEL EJERCICIO 2016:-** Dada cuenta del mismo, los asistentes, por unanimidad, acuerdan: Darse por enterados.

## ATAL ERABAKITZAILEA
### Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia

## PARTE RESOLUTIVA
### Hacienda y Especial de Cuentas

**7.- BETEBEHARREN AITORPENA.** Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 40. eta 41.2 artikuluekin bat, eta betebeharra aitortu aurreko gastu baimenik ez dagoela eta.

**7.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES**. De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Aztertu da Ekonomia eta Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamena.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Ondoren, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikoko Leire Basauri andreak hartu du hitza, betebeharren aitorpena azaltzeko. Ogasun Batzordean landu zen gai hau. Planteatu behar dizuegu aldaketa bat, batzordetik pasatu genuen betebeharren aitorpenaren inguruan. Atzo, otsailaren 27an, bulego teknikotik txosten bat sartu zan espedientean Electicidad Martin Enpresaren fakturaren kopurua oker zegoela jakinarazteko. Dirudienez bere momentuan onartu egin zan faktura hori baina beranduago bulego teknikoan konturatu dira akats bat zeukala. Proposamena hauxe da: faktura hori espedientetik ateratzea, hau da, 44.512,22 € hoiek kanpoan uztea eta ordainketa honek bere bidea jarraitzea beste espediente batean. Hau honela onartzen bada, betebeharren aitorpenaren diru-kopurua 45.963,71 €koa izango da.

Seguidamente, toma la palabra Dª Leire Basauri del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, para explicar el reconocimiento de las obligaciones. Este tema se trató en la Comisión de Hacienda. Debemos plantearos una modificación sobre el reconocimiento de las obligaciones que fue tratado en comisión. Ayer 27 de febrero, se recibió un informe en la Oficina Técnica, para informar sobre el error en el importe de la factura de la empresa Electricidad Martín. Al parecer, en su momento dicha factura fue aprobada, pero más tarde, en la Oficina Técnica se han dado cuenta que tenía un error. La propuesta esla siguiente: sacar dicha factura del expediente, es decir, dejar fuera el importe de 44.512,22 €, y que el pago siga su procedimiento en otro expediente. Si eso se aprueba de esa manera, la cantidad del reconocimiento de las obligaciones sería de 45.963,71 €.

Ondoren, Manuela Ruiz andreak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Zalantza asko sortzen zaigu, zeren eta enpresa horrek, Electricidad Martín, S.A.k, atzerapen handia baitu, adibidez, ekarri eta jarri behar zituzten kableetan, eta zehapena zegoela aipatu zen. Ba al dakigu ezer horri buruz?

A continuación toma la palabra Dª Manuela Ruiz indicando: Nos surgen muchas dudas porque esta empresa, Electricidad Martín SA, siempre tiene mucho retraso, por ejemplo en el cableado que tenían que traer y colocar etc y se habló de que había una penalización. ¿Sabemos algo de la misma?

Hauxe erantzun du alkate jaunak: Izan ere, horregatik berretsi da betebeharrak aitortzeko espedientea, hain zuzen bidezkoak diren zigorrak ezartzeko, bai atzerapenagatik, bai obrak behar bezala ez burutzeagatik. Aparteko espedientean tratatuko da eta ez betebeharren beste aitorpenengatik, gertatu denari buruzko informazioa ahalik eta argiena izan dadin talde guztientzat, eskuragarri dagoen aparteko espediente batean. Baldintza-oinarrietan atzerapenagatik ezarri beharreko zigorrak daude xedaturik, edo kasu honetan, instalaziorako kablea falta delako, eta zehapenak ezarriko zaizkio. Berak dituen epeengatik, alegazioengatik, eta abar datorren hilean edo bi hilabete barru joango da Informazio Batzordera.

Contesta el Sr. Alcalde indicando: De hecho por eso se retira el expediente del reconocimiento de obligaciones, precisamente para imponerle las penalidades que corresponden tanto por el retraso como por la no ejecución correcta de las obras. Se va a tratar como un expediente independiente y no con otros reconocimientos de obligaciones para que la información sobre lo que ha pasado sea lo más nítida posible para todos los grupos en un expediente independiente y accesible a todos. En el Pliego de Condiciones están establecidas las penalidades que corresponden por retraso, o en este caso porque falta cable por instalar y se le impondrán esas penalidades. Por plazos que él tiene, alegaciones, etc irá o el mes que viene o dentro de dos meses a la Comisión Informativa.

Ondoren, Sopelako EHBildu udal taldeko Guillermo Víok hartzen du hitza esanez: Esatea gu pozten garela aldaketa honetaz, eta horrek ere eragin du gure bozka aldaketan. Guk bozka bat aurreikusita genuen eta orain beste bat emango dugu. Dena dela, neurri batean, Manuelak esan duen ildotik hausnarketa hori egin nahi dugu. Hona zetorren ordainketa osoa, enpresa honi, azaroko aktan dago jasota eta hitzez-hitz irakurriko dut: *lapurreten aurkako kablearen hornidurarako Electricidad Martín enpresaren kontratuari eta entrega-epea ez betetzeari buruz, oraindik ere zati bat falta da entregatzeko; beraz, oraindik zehapena ezin izan da ezarri. Aplikatu beharreko jarraibidea, araudiaren arabera kargarik handiena sortzen duen zehapena aplikatzea da*. Hau Hirigintza Batzordeko Aktan dago jasota. Guk zegoen moduan ez genuen babestuko baina une honetan kanpoan geratu da, beraz onartzen dugu eta zentzu horretan ez dugu inolako zalantzarik eta onartuko dugu.

A continuación toma la palabra D. Guillermo Vío del Grupo Político Municipal Sopelako EHBildu, para indicar lo siguiente: Decir que nos alegramos de esta modificación, que también incide en nuestro cambio de voto. Teníamos previsto un voto, pero ahora daremos otro diferente. No obstante, en cierta manera queremos reflexionar en el sentido indicado por Manuela. Aquí recibimos todo el pago a esta empresa, recogido en el acta de noviembre, y lo leo textualmente: *En relación al contrato de la empresa Electricidad Martín para el suministro del cableado antirrobo y al incumplimiento del plazo de entrega, falta aún una parte para su entrega, por lo que todavía no se puede establecer la penalidad. La instrucción que deber ser aplicada es la aplicación de la penalidad que produce la mayor carga según la Normativa.* Así consta en el acta de la Comisión de Urbanismo. Nosotros no la habríamos apoyado tal como estaba, pero en este momento se queda fuera, por lo que la aceptamos, y en este sentido no tenemos ninguna duda y lo aceptamos.

Ondoren, Electricidad Martín enpresaren faktura kentzearen gaineko bozketa egingo da, betebeharren aitorpenen zerrendan sartua. Honako emaitza hau du:

A continuación se procede a votar la retirada de la factura de Electricidad Martín incluida en la relación de reconocimiento de obligaciones, arrojando el siguiente resultado:

Abstentzioak: Orain udal talde politikoko Juan Ignacio Del Vigo jauna eta Manuela Ruiz andrea (atxiki gabeko zinegotzia).

Con la abstención de D. Juan Ignacio Del Vigo del grupo político municipal Orain y de Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita)

Osoko bilkurak, gehiengoz, hau erabaki du:

Electricidad Martín S.A.ren faktura kentzea betebehararen aitorpenen zerrendatik.

Jarraian, betebeharrak aitortzearekin loturiko gainerako fakturak bozkatu dira, eta hauxe izan da emaitza:

Abstentzioak: Orain udal talde politikoko Juan Ignacio Del Vigo jauna; Manuela Ruiz (zinegotzi atxiki gabea) eta Denok Batera Sopela udal talde politikoko Jon Andoni Gerediaga jauna.

Udalbatzak, gehiengoz, hauxe erabaki du:

Ondoko betebeharrak aitortzen dira:

El Pleno, por mayoría, acuerda:

Excluir de la relación de Reconocimiento de Obligaciones la factura de Electricidad Martín S.A.

Seguidamente se procede a la votación del resto de facturas relacionadas en el reconocimiento de obligaciones, arrojando el siguiente resultado:

Con la abstención de D. Juan Ignacio Del Vigo del grupo político municipal Orain; de Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita) y de D. Jon Andoni Gerediaga del grupo político municipal Denok Batera Sopela.

El Pleno, por mayoría, acuerda:

Reconocer las siguientes obligaciones:

| Proveedor/Hornitzailea | Concepto/Kontzeptua | Importe/ Kopurua |
|---|---|---|
| ATOS | Servicio mant. Soporte Microsoft 2016<br>Microsoft 2016 euskarria mantentzeko zerb. | 5.677,32 € |
| Integral de Vigilancia y Control | Seguridad y vigilancia en pista de hielo diciembre<br>Segurtasuna eta zaintza izotz-pistan abenduan | 3.573,74 € |
| KAENER | Reparación fuga de agua en Zipiriñe<br>Ur-ihesa konpontzea Zipiriñen | 72,90 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Alquiler impresora juzgado de paz<br>Bake epaitegiko inprimagailuaren alokairua | 30,25 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Alquiler impresora juzgado de paz<br>Bake epaitegiko inprimagailuaren alokairua | 30,25 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Alquiler impresora juzgado de paz<br>Bake epaitegiko inprimagailuaren alokairua | 30,25 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Copias juzgado de Paz<br>Bake epaitegiko kopiak | 362,23 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Alquiler impresora juzgado de paz<br>Bake epaitegiko inprimagailuaren alokairua | 30,25 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Alquiler impresora juzgado de paz<br>Bake epaitegiko inprimagailuaren alokairua | 30,25 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Copias juzgado de paz<br>Bake epaitegiko kopiak | 139,63 € |
| CANON ESPAÑA S.A. | Copias juzgado de paz<br>Bake epaitegiko kopiak | 197,80 € |
| Correos | Servicios postales diciembre 2016. Juzgado de paz / 2016ko abenduko posta zerbitzua. Bake epaitegia | 117,33 € |
| SUMUN Equipamientos S. Coop. | Ropa policía Municipal / Udaltzaingoaren arropa | 231,28 € |
| SUMUN Equipamientos S. Coop. | Ropa policía Municipal / Udaltzaingoaren arropa | 3.945,09 € |
| AULOCE, S.A.U | Suscripción Espúblico editorial servicios<br>Espúblico editorial zerbitzuak: harpidetza | 2.314,74 € |

| | | |
|---|---|---|
| ENVISER | Serrvicio de recogida de residuos junio 2016<br>Hondakinak biltzeko zerbitzua, 2016ko ekaina | 20.608,48 € |
| Uribe Kostako Mankomunitatea | Servicio UKAN auto diciembre 2016<br>UKAN auto zerbitzua, 2016ko abendua | 31,47 € |
| BLU BLU | Vasos fuente agua Kurtzio octubre 2016<br>Kurtzioko iturriko edalontziak, 2016ko urria | 181,50 € |
| Transportes BILLALA, S.L. | Transporte de escenario Diciembre 2016<br>Eszenatokiaren garraioa, 2016ko abendua | 303,71 € |
| ENVISER S.A.U. | Serrvicio de recogida de papel septiembre<br>Papera biltzeko zerbitzua, iraila | 850,80 € |
| LASUMA | Dirección de obra proyecto de regeneración de Ingesta y de la integración paisajística del Skate / Park Ingesta birsortzeko eta Skate Parken paisaia-integraziorako proiektu-obraren zuzend. | 1.996,50 € |
| TALLER 2A S.L. | Suplemento Hemendik resumen año 2016 Deia/ Hemendik gehigarria, 2016ko laburpena. Deia | 1.052,70 € |
| TALLER 2A S.L. | Cuñas en Radio Bilbao del 26 de diciembre al 8 de enero / Iragarki laburrak Bilbao Irratian, abenduaren 26k urtarrilaren 8ra | 2.541,00 € |
| TALLER 2A S.L. | Modulo en Berria Euskararen Eguna / modulua | 900,24 € |
| Mª Pilar Jaureguizar Barruetabeña. | Arrendamiento local lanzadera empleo enero<br>Enplegua bultzatzeko lokalaren errent., urtarrila | 714,00 € |
| | TOTAL/GUZTIRA | **45.963,71 €** |

## Udal Administrazioa eta Langileria

**8.- BIZKAIKO FORU-KONTRATAZIO ZENTRALERA ATXIKITXEA, BIDEZKOA BADA:-** Oinarria: Bizkaiko Foru Aldundiak uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretua eman zuen, Bizkaiko foru-kontratazio zentrala sortu eta horren eraketa arautzekoa, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen 2016ko uztailaren 21ean (139 zk.).

Oinarria: interes orokorrekoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio zentralera atxikitzea, honako zio hauengatik: Herri administrazioetako administrazio-lana errazteko eta kontratazioaren espezializazioa lortzeko printzipioak aplikatzea, eskuraketak erraztuz eta, gainera, eskala-ekonomiak deritzenak aplikatzea ahalbidetuz.

Oinarria: Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan, sektore publikoko erakundeek ondasun, obra eta zerbitzuen kontratazioa zentralizatzeko posibilitatea ezarri zen, eta zerbitzu espezializatuei atxikitzen die posibilitate hori, zehazkiago, hauxe dio 204.2. artikuluko

## Administración Municipal y Personal

**8.- ADHESIÓN, SI PROCEDE, A LA CENTRAL DE CONTRATACIÓN FORAL DE BIZKAIA:-** Visto que la Diputación Foral de Bizkaia ha dictado el Decreto Foral 125/2016, del 20 de julio, por el que se crea y se regula la composición de la central de contratación foral de Bizkaia publicado y lo ha publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 139 de 21 de julio de 2016.

Visto que es de interés adherirse a la central de contratación de la Diputación Foral de Bizkaia por los siguientes motivos: Dar aplicación a los principios de simplificación administrativa y especialización de la contratación de las Administraciones Públicas, facilitando las adquisiciones y además permitiendo la aplicación de las denominadas economías de escala.

Visto que el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público contempla la posibilidad de que las entidades del sector publico puedan centralizar la contratación de bienes, obras y servicios, atribuyéndola a servicios especializados y, en concreto, el artículo 204.2, precepto básico, que

oinarrizko manuak: Tokiko Administrazioaren eremuan, “Probintziako aldundiek kontratazio zentralak sortu ahal izango dituzte, osoko bilkurak hala erabakita.”

indica que en el ámbito de las Administración Local las “Diputaciones provinciales podrán crear centrales de contratación por acuerdo del Pleno.”

Gertaera: Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluaren arabera, aldundiaren berezko eskumena da kontratazio zentralizatua 20.000 biztanletik gorako udalerrietan.

Considerando que el artículo 36 Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local considera como competencias propias de las Diputaciones la contratación centralizada en los municipios con población inferior a 20.000 habitantes.

Gertaera: uztailaren 20ko 125/2016 Bizkaiko Foru Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan ezarrita dagoenez, udalak kontratazio zentralari atxiki dakizkioke, eta kontratazio zentral horrekin bat egindakoan, atxikitako erakundeek askatasunez erabaki dezakete zentralak izapideturiko akordio-makro zehatz bakoitzarekin bat egiten duten edo ez.

Considerando que los artículos 2 y 3 del Decreto Foral de Bizkaia nº 125/2016, del 20 de julio, prevén que los Ayuntamiento se puedan adherir voluntariamente a la central de contratación y que el dispone que una vez que se produzca esta adhesión las entidades adheridas podrán decidir libremente si se adhieren o no a cada uno de los acuerdos marco concretos que tramite la central.

Gertaera: Foru Dekretu horren 9. artikuluan xedatu denez, dekretu horretan I. eranskinean azaltzen den atxikitze-hitzarmena sinatuta gauzatuko da kontratazio zentralari atxikitzeko prozedura, baina atxikitze horrek ez du udalaren autonomia baldintzatzen, zeren eta udalak askatasuna baitu atxikitzeko edo ez, zentralak kudeatuko duen kontratazio-espediente bakoitzari ondoren atxikitzen zaion ala ez.

Considerando que el artículo 9 del mismo Decreto Foral establece que procedimiento de adhesión a la central de contratación se formalizara mediante la firma del convenio de adhesión que figura como Anexo I en el referido Decreto y que dicha adhesión no condiciona la autonomía municipal, ya que el Ayuntamiento es libre de adherirse o no posteriormente a cada expediente de contratación que gestione la Central.

Oinarria: idazkaritzak 2017ko otsailaren 14ko txostena egin zuen, eta hauexek aztertu zituen bertan zuzenbidearen aldetik: kontratazio zentralen araubidea, atxikitzeko prozedura eta atxikitze orokorra erabakitzeko organo eskuduna, baita akordio-makroekiko atxikitze bakoitza ere.

Visto el informe de secretaria de fecha 14 de febrero de 2017 en el que se analiza jurídicamente el régimen de las centrales de contratación, el procedimiento de adhesión y el órgano competente para acordar la adhesión genérica así como cada una de las adhesiones que se realicen a los acuerdos marco.

Ondoren, Eusko Abertzaleak - Nacionalistas Vascos Udal Talde Politikoko Felix Gabarain jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Gaia informazio batzordean aztertu zen, eta gaur erabaki proposamena ekarri da osoko bilkurara, Bizkaiko Foru Aldundiak sortu duen erosketa zentralarekin bat egiteko. Foru Aldundiak erosketa eta kontratazio zentrala sortu zuen uztailean, eta kontratazio publiko zentralizatuko ondasunen eta zerbitzuen lizitaziorako, esleipenerako eta kudeaketarako mahai bakar gisa funtzionatzen du. Izan ere, jada eginda dago 2017rako bulegoko materiala erosteko lehen kontratuaren lizitazioa. Lehen kontratu horren ondoren, zelulosaren eta higiene eta garbiketako materialaren hornidura etorriko da, eta pixkanaka bestelakoak lizitatuko dira hala nola argindarra, aseguruak, etab., hain zuzen zentralean askatasunez parte hartzea erabaki duten kideen beharren arabera, agertuz joango

A continuación toma la palabra D. Félix Gabarain, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak - Nacionalistas Vascos, indicando: Este asunto se trató en la Comisión Informativa correspondiente y hoy se trae a este Pleno una propuesta de acuerdo para sumarnos a una Central de Compra que la Diputación Foral de Bizkaia ha creado. La Diputación Foral creó el pasado mes de Julio una Central de Compra y Contratación que funciona como mesa única de licitación, adjudicación y gestión de bienes y servicios de contratación pública centralizada. De hecho ya se ha licitado el primer contrato para adquirir material de oficina para el 2017. A este primer contrato le seguirá el suministro de celulosa, material de higiene y limpieza, y paulatinamente serán licitados otros como energía eléctrica, seguros, etc en función de las necesidades que los miembros que libremente hayan decidido participar en esta central de

diren beharren arabera. Erosketa zentralak ondasunen eta zerbitzuen lizitaziorako, esleipenerako eta kudeaketarako mahai bakar gisa funtzionatzen du, dela Aldundiarentzat eta foru sektore publikoko erakundeentzat, dela harekin bat egitea erabakitzen duten Bizkaiko udal, mankomunitate eta partzuergoentzat. Kontratuei buruzko legeriak sektore publikoko kontratazioa antolatzeko ezarrita dituen tresnetako bat da erosketa zentrala. Eskaintzen dituen abantailen artean, nabarmentzekoa da administrazioko lanak erraztea eta kostuak murriztea, zeren eta kontratazio bolumenari esker enpresa hornitzaileek prezio lehiakorragoak eskaini baititzakete, eta horren onurak jasotzen dituzte zentralarekin bat egindako erakunde guztiek. Gainera, gardentasun eta segurtasun handiagoak dira kontratazio publikoan. Horrez gain, kontuan izan behar da ezen udalek zentralarekin bat egiteak ez duela esan nahi zentralak izapidetzen dituen akordio-marko guztietan parte hartu behar dutenik. Alderantziz: harekin bat egindakoan, udalak askatasunez erabakiko du akordio-markoari beren beregi atxikitzen zaion ala ez. Hala, udal bakoitzak berekin gordetzen du akordio-markoaren ondoriozko kontratuak esleitzeko eta gauzatzeko ahalmena, baita gastua baimendu eta baliatzeko eta ordainketa agintzeko eskumena ere. Azken finean, atxikitze-sistema honetan, edozein kontratazio prozedura osatzen duten izapideen zati bat udalen esku gelditzen da. Hori dela-eta, lagungarria da udalak kontratazioaren eremuan izan behar duen autonomia errespetatzeko.

compras vayan solicitando necesidades que se vayan presentando. La Central de compra funcionará con mesa única de licitación, adjudicación y gestión de bienes y servicios tanto para la Diputación y Entidades del Sector Público Foral como para los Ayuntamientos, Mancomunidades y Consorcios del Territorio que quieran adherirse. Las Centrales de compra constituyen una de las herramientas que la legislación de contratos contempla para ordenar la contratación en el sector público. Entre las ventajas que ofrece, cabe destacar la simplificación administrativa y la reducción de costes, ya que el volumen de contratación permite a las empresas proveedoras ofrecer precios más competitivos de los que se beneficiarán todas las entidades adheridas así como mayor transparencia y seguridad en la contratación pública. Además debe tenerse en cuenta, que el hecho de que los Ayuntamientos se adhieran a la central, no implica que deban participar en todos los acuerdos marco que tramite la misma, todo lo contrario, una vez que se produzca esta adhesión, el Ayuntamiento será libre para acordar o no la adhesión específica al acuerdo marco. De esta manera, se reserva cada ayuntamiento la facultad de adjudicar y formalizar los contratos derivados del acuerdo marco así como la competencia para la autorización y disposición del gasto y la ordenación del pago. En definitiva, se trata de un sistema de adhesión en el que parte de los trámites que forman parte de cualquier procedimiento de contratación, quedan en manos de los Ayuntamientos lo que contribuye a respetar la autonomía que en el ámbito de la contratación debe tener el Ayuntamiento.

Ondoren, Orain Udal Talde Politikoko Juan Ignacio Del Vigo jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Harrigarri egin zaigu berriz ere hona ekartzeko izan den presa. 2016ko uztailaren 21etik dago onetsita. Badirudi ez dugula ikasi OHZarekin eginiko akatsetik; hori ere “in extremis” ekarri zen. Esan beharra dago ere ez dela parte hartzeko aukerarik izan foru arauaren gaineko eztabaidan. Egia da zenbait gaitan positiboa izan daitekeena, baina ez gaude ados aurkezteko moduarekin. Askotarikoak izan daitezke ondorioak. Ez dakar klausula sozialik, lan baldintzarik, ingurumenaren ingurukorik; zentral nuklearretatik datorren energia eros dezakegu, eta are gehiago, paradisu fiskaletan kotizatzen duten enpresekin kontratatu dezakegu. EAJk TTIP babesten duela jakinik, ez dakigu zein enpresatan bukatuko diren gure zerbitzuak. Sopelak hurbileko merkataritza edo tokikoa baliatu behar du; horixe babestu behar dugu. Planteamendu horrekin, atea ixten zaio zerbitzuak berriz ere udalaren eskuetan jartzeko

Después toma la palabra D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain, para indicar: Nos sorprende de nuevo las prisas con las que se trae aquí. Esto está aprobado desde 21 de Julio de 2016. Parece que no hemos aprendido del error cometido con el IBI, que también se trajo “in extremis”. Decir también que no ha habido ninguna posibilidad de participación en el debate de la Norma Foral. Si bien es cierto que puede resultar positivo en algunos temas, no estamos de acuerdo en la forma de presentación. Las consecuencias pueden ser múltiples. No incluye cláusulas sociales, condiciones laborales, medioambientales, podemos comprar energía procedente de centrales nucleares, incluso contratar con empresas que coticen en paraísos fiscales. Sabiendo que el PNV apoya el TTIP no sabemos en qué empresas terminarán nuestros servicios. Sopela debe nutrirse del comercio cercano o local, que es el que debemos apoyar. Con este planteamiento se da portazo a cualquier pretensión de

edozein asmori. Badakigu nora garamatzaten pribatizazioek, eta kostuak murrizteko modu horrekin, okerrera egiten dute zerbitzuak eta lan prekarietateak. Enpresa adjudikaziodunak agindutakoa betetzen ez badu, auzitara eraman beharko da Foru Aldundia, baina hori zail samarra da. Laburbilduz, uste dugu akordio horrek eskumenak galtzea dakarrela; ezin da tokiko merkataritzaren alde egin, pribatizazioaren aldeko apustua egiten da eta atera irekitzen zaie paradisu fiskaletan kotizatzen duten IBEX 35eko enpresei. Horrelakoak ez dira presaz egiten, nahikoa denbora daramalako argitaratuta eta joan den astean ekarri da Batzordera. Presaz egin da udalekin kontsultatu barik. Momentuz, eta zenbait kontu argitzen ez den bitartean, kontrako botoa emango dugu.

remunicipalizar los servicios. Sabemos dónde nos llevan las privatizaciones y su forma de reducir costes es el empeoramiento del servicio y la precariedad laboral. En caso de incumplimiento de la empresa adjudicataria, habría que pleitear con la Diputación Foral, cosa ésta un poco complicada. En resumen, creemos que este acuerdo es una pérdida de competencias no pudiendo apostar por el comercio local, una apuesta por la privatización y abre la puerta a empresas del IBEX 35 que cotizan en paraísos fiscales. Esto es una cosa que se hace con prisas porque ya lleva bastante tiempo publicado y se ha llevado a Comisión la semana pasada. Se ha hecho con prisas sin consultar con los Ayuntamientos. Por el momento y mientras no se aclaren una serie de cuestiones nuestro voto será contrario.

Jarraian, Sopelako Euskal Sozialistak Udal Talde Politikoko Mª Teresa Fernández andreak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Idazkaritzak eta Kontu-hartzailetzak esan digutenaren arabera, akordioa ez da loteslea ezer zehatzetan, ez dago zertan ezer nahitaez kontratatu, baizik eta kontratu merkeagoa edo garestiagoa den aztertzeko posibilitatea zabaltzen da gure zentral horren bitartez edo gure kontura kontratatuta. Hori dela-eta, ez dut uste autonomia kentzen digunik eta, gainera, eztabaidatzeko eta organo egokiaren arabera interesa zaizkigun kontratuekin konprometitzeko aukera dugu. Nire aldetik, ez daukat eragozpenik.

Acto seguido toma la palabra Dª Mª Teresa Fernández, del grupo político municipal Socialistas Vascos de Sopela para indicar: Por lo que se nos ha informado por parte de Secretaría e Intervención, este acuerdo no vincula a nada en concreto, no hay obligación de contratar nada obligatoriamente sino que abre posibilidad de analizar si hay un contrato más ventajoso o menos acudiendo a esta central o contratando por nuestra cuenta, con lo cual considero no nos resta autonomía y además tenemos la posibilidad de debatir y comprometernos con contratos que nos interesen de acuerdo al órgano correspondiente. Por mi parte, no tengo nada que objetar.

Ondoren, Denok Batera Sopela udal talde politikoko Jon Andoni Gerediaga jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: DB-TU-ren interes nagusienetako bat kontratazio publikoan gizarte baldintzak sustatzea da, ETEen sartzeko modua erraztuz, eta are hobeto tokiko enpresak badira, baina bereziki interesa zaizkigu Europako zuzentarauak bete daitezen kontratu publikoak erlotan banatzea errazteari dagokionez. Izan ere, hori ere lagungarria da ETEen lizitazioak eskuratzeko. Azkenik, uste dugu prezioa ez dela kontratua lizitatzeko alderdi garrantzitsu bakarra; lehentasunezkotzat jotzen dugu zerbitzuaren kalitatea ziurtatzea. Arestian esan den moduan, kontuan hartzen dugu ere ez dugula ziurtaturik ikusten udal kontrola erraztea horrelako kontratazioetan, ezta gizarte klausulak betetzen direla ikuskatzea ere. Hortaz, kontrako iritzia dugu kasu honetan.

A continuación toma la palabra D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela para indicar: Uno de los intereses principales de DB-TU es promover condiciones sociales en la contratación pública, ya sea facilitando el acceso de las PYMES y mejor aún si son locales, y también nos interesan especialmente que se cumplan las directivas europeas en lo que respecta a favorecer la división de los contratos públicos en lotes, cosa que también favorece el acceso de las licitaciones de las PYMES. Por último consideramos que no es el precio el único aspecto importante para licitar un contrato, sino que nos parece primordial asegurar la calidad del servicio. Tenemos en cuenta también, como se ha apuntado anteriormente, que no vemos asegurado facilitar el control municipal en estas contrataciones y tampoco la supervisión del cumplimiento de las cláusulas sociales. Por lo tanto, nuestro posicionamiento es en contra.

Jarraian, Manuela Ruiz andreak (atxiki gabeko zinegotzia) hartu du hitza, hauxe adierazteko: Guk ere ezezko botoa emango dugu, iruditzen

Seguidamente toma la palabra Dª Manuela Ruiz, (concejala no adscrita) para indicar: Nosotros también votamos en contra porque

zitzaigulako autonomia galtzen dela, eta, batez ere, iruditzen zaigu udalerrietan ekintzaile bihurtu gaitezela esaten zaigula, negozioak ireki ditzagula, eta bestetik bolumen handiak kontratatu nahi ditugu. Ez dauka zentzurik. Kalte handia izango genukeela deritzot, erosketa guztiak ezin izango genituzkeela kontrolatu; ez dakigu Panaman fiskalizatzen duten. Uste dut hobe dela udalerrian erostea, Uribe Kostan, zeren eta lanpostuak sortzen baitira, zergak ordaintzen baitira eta askoz hobea baita udalerriarentzat eta udalarentzat.

Ondoren, Sopelako EHBildu udal taldekoa den Guillermo Víok hartzen du hitza, zera esanez: Neurri handi batean, gure argudioak esanda daude, aurreko hiru lagunek esan dituztelako. Guk ere oraingo honetan ezetza emango dugu. Kontratazio publikoko 35 ondasun eta zerbitzuren lizitatu, esleitu eta kudeatzeko mahai bakarra da. Hori onartzen badugu, zentral horren eta hautaturiko enpresen arteko akordio-markoetan ezarritako baldintzen eta prezioen arabera egingo dugu eta, beraz, EHBilduk ez du proposamen horren aldeko botorik emango. Neurri handi batean, eta labur-labur esanda, lehenik eta behin irizpide ekonomiko hutsetan oinarritzen dela esan behar da, enpresa handiek jasoko dutela onura eta kaltegarria izango dela enpresa txikientzat. Tokiko ekonomia sustatu beharrean, kaltetu egingo du. Tokiko enpresek eman litzakete zerbitzu asko, eta enpresa horren bidez, neurri handi batean, bide hori desagertu egingo litzateke. Gainera, irizpide ekonomizista bera oso zalantzagarria izan daiteke, zeren eta denok baitakigu zelan egiten dituzten itunak, zelan lortzen dituzten akordioak enpresa handiek euren eraginpeko eremuak elkarrekin banatzeko, prezioak, etab. Hori dela-eta, irizpide bera zalantzagarria da. Bigarrenik, uste dugu eskumenak udaletik aterako direla, erabakiak hartzeko aukera urrunago geldituko dela, eta ikusiak ditugu jada horrek dakartzan problemak ondoren arazoren bat dagoenean. Ez dakit konparagarria den, baina hainbat zerbitzu ditugu mankomunatuta, eta zailtasunak ditugu dagoeneko erakunde lagun eta hurreko batekin partekatzen ditugun gaietan, hots, Mankomunitatearekin, paperaren eta kartoiaren banaketan adibidez. Zailtasunak ditugu jarduteko eskumena beste administrazio batena denean. Azkenik, nahiz eta zentralarekin bat egitea borondatezkoa den, berekin dakar udal autonomia eta erabakiak hartzeko boterea gutxitzea; izan ere, Foru Aldundiaren eskura igaroko lirateke. Jakin badakigu, soilik alde ekonomikotik begiratuta, zenbait kasutan abantailak izan litezkeela; itsuak ere ez gara, baina txosten teknikoak dioenez, atxikitze bifasiko horretan, etengailu bat proposatzen dugu: osoko bilkura izatea, ez organo egokia,

nos parece una pérdida de autonomía y sobre todo nos parece que desde los municipios nos dicen que nos hagamos emprendedores, que abramos negocios, y por otra parte lo que queremos es contratar grandes volúmenes. No tiene ningún sentido. Considero que saldríamos muy perjudicados, que no podríamos controlar todas las compras, no sabemos si fiscalizan en Panamá, considero que es mejor comprar en el municipio, en Uribe Kosta, ya que se crean empleos, se pagan impuestos y es mucho mejor para el municipio y el Ayuntamiento.

A continuación, toma la palabra D. Guillermo Vío, del grupo político municipal Sopelako EHBildu indicando: En gran medida nuestros argumentos ya se han dicho por parte de los 3 anteriores compañeros. Nosotros también en este punto votaremos en contra, Es una única mesa de licitación, adjudicación y gestión de 35 bienes y servicios de contratación publica. Si la aceptamos es de conformidad a las condiciones y precios que se fijen en los correspondientes acuerdos marcos que se concluyan entre dicha Central y las empresas seleccionadas, por lo que EHBildu no va a votar a favor de esta propuesta. En gran medida y resumiendo mucho, en primer lugar decir que se basa en criterios puramente económicos, se beneficiarán las grandes empresas y será perjudicial para las pequeñas empresas y en lugar de promover la economía local la deteriora. Muchos servicios los podrían dar las empresas locales y mediante esta propuesta, en gran medida, esa vía desaparecería. Además, el mismo criterio economicista puede ser muy cuestionable, porque todos sabemos cómo pactan, cómo llegan a acuerdos las grandes empresas para repartirse zonas de influencia, precios, por lo que el mismo criterio economicista sería cuestionable. En segundo lugar, consideramos que se sacan las competencias del Ayuntamiento, se aleja la toma de decisión y ya hemos visto los problemas que ésto origina cuando luego hay algún problema. No se si es comparable pero tenemos varios servicios mancomunados, y tenemos dificultades en temas que ya en estos momentos tenemos compartidos con una institución amiga y cercana, como es la Mancomunidad, con el tema de la recogida de papel y cartón. Tenemos dificultades para actuar cuando es competencia de otra administración. Por último, porque aunque la adhesión es voluntaria trae consigo la reducción de la autonomía municipal y el poder de decisión, que pasarían a estar en manos de la Diputación Foral. Somos conscientes, mirando desde un aspecto puramente económico, en algunas cosas podría haber algunas ventajas, tampoco somos ciegos, pero como dice el informe jurídico, esa adhesion

organo hori askotan Alkatetzea baita. Horrenbestez, osoko bilkura honek eskumen oro eta jarraipen oro galduko luke hara igarotzen diren kontratuetan. Txosten juridiko horretan, uste dugu interesgarria dela ondoko paragrafoa, hitzez hitz hauxe dioena: *“atxikipen bifasikoan, defenda zitekeen osoko bilkurak hartu behar izatea atxikitze orokorrari buruzko akordioa, zeren eta, egintza honetan eskumenen esku-aldaketa gertatzen ez bada ere, babesa emango bailitzaieke etorkizunean izango direnei, hots, osoko bilkurak eskumenen balizko esku-aldaketak onartuko bailituzke”*. Gure botoak, une honetan, etorkizuna baldintzatuko luke. Ildo horretan, beste zinegotziek esan dutenarekin bat, guk ere bozkatuko dugu proposamenaren aurka.

bifásica, proponemos un interruptor y que el mismo sea el pleno, que no sea el órgano correspondiente, porque ese órgano muchas veces es Acaldía, con lo cual este Pleno perdería toda competencia y todo seguimiento de esos contratos que pasan allí. Dentro de ese informe jurídico, creemos que es interesante un párrafo que dice literalmente *“en la adhesión bifásica se podría defender que el acuerdo de adhesión genérico deba ser adoptado por el Pleno dado que aunque en este acto no se produzca una transmisión efectiva de competencias sí se ampararían las que se realicen en el futuro, esto es, el Pleno estaría autorizando esas eventuales transmisiones de competencias”* . Nuestro voto en estos momentos condicionaría el futuro. En ese sentido, de acuerdo con lo dicho por los compañeros, nosotros también votaremos en contra de la propuesta.

Azkenik, Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos udal talde politikoko Felix Gabarain jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Ez dago askorik gehitzeko. Izan ere, ikusten ari naizena zera da: kontu politikoa dela norberak administrazioaren eginbeharraz duen ideiarena baino. Esan behar da gaia bizkor ekarri dugula iazko uztailetik zegoelako; esan behar dut hain zuzen ere kontrakoa dela. Uztailetik bagenekien zentrala sortu zela, eta zelan zebilen ikusi nahi izan dugu, ea interesgarria izango zitzaigun ala ez jakiteko. Kontrola galtzen dugula eta enpresek diru paradisu fiskaletan izateko aukera ematen diogula, etab. aipatu da. Horri dagokionez, askotan entzuten ari den ipuina da. Ez dakit dakigun zeini erosten zaion eta zeini ez. Nire ustez udalean ari gara lanean herritarren interesak ahalik eta ondoen zaintzeko, eta uste dugu zergadunaren dirua zaindu behar dela. Hori egiteko modu bat da gureak moduko arazoak dituzten beste udalerri batzuekin bat egiten saiatzea. Esango didazue, adibidez, komunerako papera erostean zerikusia duten paradisu fiskalek edo antzekoek; azkenean paper erroilua 50 zentimoan barik 25 zentimoan erosten badugu. Zenbait zerbitzu zailagoak izan daitezke, baina osoko bilkurak berak erabaki dezake hori. Osoko bilkuratik sartzen da zentralean eta osoko bilkuratik beretik irteten da. Udalak ikusten badu erosketa zentrala ez dela bide egokia jarraitzen ari udal interesentzat, irten egingo gara eta kito. Horren bidez, irten baino ez ginen egin, zelan zebilen jakiteko eta informazioa jasotzen hasteko, hain zuzen lizitatu beharrekoak, arriskuak, etab. zein ziren jakiteko. Gizarte klausulak aipatu dituzue, baina baldintza-orriren bat ikusi al duzue? Baldintza-orrietako bat aztertu al duzue? Oso ziur diozue ez dagoela gizarte klausularik, ETEak ezin izango liratekeela sartu. Kontratazioari buruzko

